

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 [eh\\_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus) - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus)**ARAU ALDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA, UREZ HORNITZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZA DELA-ETA**

EH BILDU udal taldeak araua aldatzea proposatzen du, zerga-progresibitateko irizpideak txertatzeko, 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 9. artikuluan jasotakoaren arabera. Honako hobari hau gehitzen du:

Ordenantzaren 8. artikuluan 6. puntua gehitzea:

6.- Etxebizitzetako erabilera domestikoa modalitatean, honako hobari hauek eskatu ahal izango dituzte subjektu pasiboek, baldin eta bizikidetz-unitateak ez baditu gainditzen urteko diru-sarreraren muga hauek:

Bizikidetz-unitatea	Hobaria		
	%80	%65	%40
1	<15.400	15.400 – 17.500	17.501 – 21.000
2	<20.160	20.160 – 22.820	22.821 – 27.440
3	<21.980	21.980 – 25.060	25.061 – 30.100
4 edo gehiago	<23.660	23.660 – 27.020	27.021 – 32.340

Hobari horren onuradun izateko, bizikidetz-unitatea osatzen duten pertsona guztiek etxebizitzan errolatuta egon beharko dute eskaera aurkeztu aurretik.

Bizikidetz-unitatetzat hartuko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikulua ezarritakoa.

Urteko diru-sarrerak zenbatzeko, bizikidetz-unitatea osatzen duten pertsona guztien aurreko urteko PFEZaren aitopenen likidazio-oinarria hartuko da kontuan. PFEZaren aitopena aurkeztu ez badute, aurreko urteko etekin gordinak hartuko dira kontuan (nominak, ondare-sarrerak...).

San Sebastián, 8 de agosto de 2024

Juan Karlos Izagirre Hortelano  
portavoz del grupo municipal EH Bildu